

Oiloak

- Baserri baten bisita egin eta gero erakusketa bat antola.
- Loto bat asma daiteke lotura eginez animalien eta beren umeen artean, ondotik horrekin jostatzeko.



ABCDEFGHIJKLMNÑOPQRSTUVWXYZ

Ahoskera

/ś/, /š/, /s/ bereizi behar dira.

– Oilo xuri kasu zuri.

Xistukari frikarien eta afrikatuen arteko erkaketa egin daiteke :

basoa / otsoa,

xakurra / etxaldea,

zaldia / itzala.

Esaldi bat asma otsoa eta basoa hitzekin. Adib. *Otsoa gure etxe gibekeko basoan gorde da eta otsoaren umeak ez dira basotik ateratzen.* Irakasleak ongi ahozkatu behar du. Haurrei erranarazi behar die. Gero erranaldi bera irakasleak hartzen du; xistukari frikariak eta afrikatuak ez ditu berak ahozkatzen baina haurrei erranarazten.

Hiztegia : animaliak beren umeekin

Ahuntza pittikaren ama da.

Behia ahatxearen ama da.

Ardia bildotxaren ama da.

Mintza gaitzen

– Oiloa xitoaren ama da. Gisa honetako perpausak haurrei eginaraz : ahuntzarentzat, behiarentzat, ardiarentzat, etabar.

-(R)EN jabege genitiboa.
– Oiloa xitoaren ama da...

* edun aditz laguntzailea

* edun eta izan aditz laguntzaileen bereizteko eta ergatiboari ohartarazteko ixtorioaren segida asma. *Axeriak oilo koloka ahoan dauka... eta gero ?* Ikasleek erranaldiak osatu behar dituzte aditz laguntzailea edo deklinabide kasuak ongi emanaz.



Talde dinamika

Haurrak eta irakaslea errondan daude, xutik; animaliak mimitzen dituzte. Lehen aldian (edo lehen aldietan), irakasleak mugimenduak erakusten ditu eta besteek mugimendu horiek imitatzen dituzte. Beraz irakaslea da gidaria.

Ondotik, ikasleak, aldizka, gidariak izanen dira. Ikasle bat gelatik aterako da eta irakasleak, errondan direnen artean, gidari bat izendatuko du. Kanpoan zegoena sartzen da eta gidaria nor den asmatu behar du (Imitazio jokoaren eramailea).

Ergatiboa.
nor-nork indikatiboa.
– Nork egiten du zaldia?
– Eztitxuk egiten du.

Janariak eta jaleak

Iruditan eman jale eta janariak : oiloa, gatua, xakurra, axeria, hezurra, saga... Irudiak pareka formulazio hauek erabiliz :

nor-nork indikatiboa.
Ergatiboa.
– Axeria gose da :
axeriak oiloa jan du.
– Gatua gose da :
gatuak saga jan du.
– Xakurra gose da :
xakurrak hezurra jan du.